

Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak

Disposiciones Generales del País Vasco

KULTURA ETA TURISMO SAILA

3396

284/1990 DEKRETUA, urriaren 23koa, Consejo Asesor del Patrimonio Arquitectónico Monumental de Euskadi/Euskadiko Monumentu kategoriako Arkitektura Ondarearen Aholku Batzordearen egitura eta iharduera arautzen dituen.

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak bere 6. atalean ohartematen duenez, Lege horrek araututako gaitan eskuduntzak dituzten Administrazioei aholkua eskaintzeko ihardute-sail aholku-emaileak sortzeko ahalmena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari.

Aipatu Legeak Kultura Ondarea babestu eta zaintzeko ohartemandako aitoren eta iharduerak erraztu ahal izateko eta, era berean, aurretik indarrean zegoen legeriaren arabera hasitako espedienteen izapideak errazteko, Monumentu kategoriako Arkitektura Ondarearen gaitarako ihardute-sail aholku-emaile bat sortzea komenigarritzat jo da.

Hori horrela, Kultura eta Turismoko Sailburuaren proposamenez, Jaurlaritza Batzordeak 1990.eko urriaren 23an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

1. atala

1.- Consejo Asesor del Patrimonio Arquitectónico Monumental de Euskadi/Euskadiko Monumentu kategoriako Arkitektura Ondarearen Aholku Batzordea, Autonomi Elkarteko Monumentu kategoriako Arkitektura Ondarea babestu eta zaintzeko arloan Eusko Jaurlaritzari aholkuak emango dizkion ihardute-sail aholku-emaile da eta Dekretu honek dioenaren arabera jardungo du.

2.- Consejo Asesor del Patrimonio Arquitectónico Monumental de Euskadi/Euskadiko Monumentu kategoriako Arkitektura Ondarearen Aholku Batzordea, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Saileko Historia eta Arte Ondarearen Zuzendaritzari atxikita egongo da.

2. atala

1.- Honako hau izango da Batzordearen osakera:

a) Lehendakaria: Kultura Sailburuordea, edo berak ordezkari izendatzen duena.

b) Lehendakariordea: Historia eta Arte Ondarearen Zuzendaria, edo berak ordezkari izendatzen duena.

c) Bokalak:

- Hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundi bakoitzeko ordezkari bana, beroiek proposatuta.

- Historia eta Arte Ondarearen Zuzendaritzak proposatutako kideak, hiru gutxienez eta zortzi gehienara.

d) Idazkaria: Historia eta Arte Ondarearen Zuzen-

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y TURISMO

3396

DECRETO 284/1990, de 23 de octubre, por el que se regula la estructura y funcionamiento del Consejo Asesor del Patrimonio Arquitectónico Monumental de Euskadi/Monumentu-Ondarearen Aholku-Batzordea.

La Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco prevé en su artículo 6 la posibilidad de que el Gobierno Vasco cree órganos consultivos que asesoren a las Administraciones competentes en las materias reguladas por esta Ley.

Al objeto de facilitar las declaraciones y actuaciones previstas por la citada Ley para la protección y defensa del Patrimonio Cultural, y con el fin de agilizar, asimismo, la tramitación de los expedientes iniciados conforme a la legislación anteriormente vigente, se ha estimado conveniente la creación de un órgano asesor en materia de Patrimonio Arquitectónico Monumental.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Cultura y Turismo, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 23 de octubre de 1990,

DISPONGO:

Artículo 1

1.- El Consejo Asesor del Patrimonio Arquitectónico Monumental de Euskadi/Ondare Monumentu-Arkitetonikoaren Aholku Batzordea es el órgano consultivo del Gobierno Vasco en materia de protección y defensa del Patrimonio Arquitectónico Monumental de la Comunidad Autónoma, que actuará en los términos del presente Decreto.

2.- El Consejo Asesor del Patrimonio Arquitectónico Monumental de Euskadi/Ondare Monumentu-Arkitetonikoaren Aholku Batzordea quedará adscrita a la Dirección de Patrimonio Histórico-Artístico del Departamento de Cultura y Turismo del Gobierno Vasco.

Artículo 2

1.- La composición del Consejo será la que sigue:

a) Presidente: Viceconsejero de Cultura, o persona en quien éste delegue.

b) Vicepresidente: El Director de Patrimonio Histórico-Artístico, o persona en quien éste delegue.

c) Vocales:

- Un representante de cada una de las Diputaciones Forales correspondientes a los tres Territorios Históricos, propuestos por aquéllas.

- Un mínimo de tres y un máximo de ocho propuestos por la Dirección de Patrimonio Histórico-Artístico.

d) Secretario: Con voz y sin voto la persona que

dariak izendatuko duen pertsona bat, hitz egiteko eskubidea izango du, baina botorik ez.

2.- Kultura eta Turismo Sailburuaren Agindu batez egingo da bokalen izendapena.

3. atala

1.- Bokal kargua ezingo zaio beste inori ordezkotzan eman, eta bi urteko iraupena izango du.

2.- Epe hori amaitzean, berriz ere hurrengo epe aldiatarako proposatu eta izendatu ahal izango dira bokalak.

1. atala

Honako hauek izango dira Batzordearen eginkizunak:

a) Legeek agindutako arauzko txostenak egitea.

b) Bere eskuduntzako gaietara buruz erizpenak lantzea eta iharduera orokorrak eta bereziak proposatzea.

c) Uztailaren 3ko 7/1990 Legearen arabera Kultura Ondarearen gaietan eskuduntzak dituzten Administrazioek agindu diezaizkieten arazo guztietara buruz erizpenak ematea eta txostenak egitea.

5. atala

Gutxienez urtean bi aldiz bilduko da Batzordea. Lehendakariak eskatuta izango da beti.

Gutxienez hamar eguneko aurrerapenez egingo du deia Batzordeko Lehendakariak Idazkariaren bidez; Bokalen eskabideak eta Historia eta Arte Ondarearen Zuzendaritzaren beharrak ikusi ondoren prestatuko da gaizerrenda.

6. atala

Batzordea eratzeko behar den quorum-a, bere kideen gehiengo osoa biltzen denean lortzen dela ulertuko da. Quorum-ik biltzen ez bada, bigarren deialdian eratuko da Batzordea, lehenengorako jarritako ordua baino ordubete geroago; honako kasuan, hiru kide bertan egotea nahiko izango da.

7. atala

Euskal Administrazioeko Sailburuen eta goi mailako kargudunen eta Administrazioekoak ez diren pertsonen zerbitzuak direla-eta ordaindu beharreko indemnizazioak arautzen dituen irailaren 17ko 307/1985 Dekretuak arautzen dituen dieta eta komisioetarako eskubidea izango dute Batzordeko kideek.

8. atala

Batzordearen iharduerari buruz Dekretu honetan arautu gabe gelditu diren puntuetan dagokienez, ihardute-sail kolejiatuetara buruz Administrazio Prozedura Legeak dioena izango da arau.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1990.eko urriak 23.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Kultura eta Turismo Sailburua,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

sea designada por el Director de Patrimonio Histórico-Artístico.

2.- El nombramiento de los vocales se efectuará mediante una Orden del Consejero de Cultura y Turismo.

Artículo 3

1.- El cargo de vocal será indelegable y tendrá una duración de dos años.

2.- Transcurrido este plazo los vocales podrán ser propuestos y nombrados para periodos sucesivos.

Artículo 4

Serán funciones del Consejo:

a) Emitir los informes preceptivos que la legislación determine.

b) Elaborar criterios y proponer actuaciones generales y particulares acerca de los temas de su competencia.

c) Dictaminar y evacuar informes acerca de cuantas cuestiones de su competencia le sean sometidas por las Administraciones competentes en materia de Patrimonio Cultural según la Ley 7/1990 de 3 de Julio.

Artículo 5

El Consejo se reunirá como mínimo dos veces al año y en todo caso, a petición de su Presidente.

La convocatoria se realizará al menos con diez días de antelación por el Presidente del Consejo, a través del Secretario, fijándose el Orden del Día a la vista de las peticiones de los Vocales y de las necesidades de la Dirección de Patrimonio Histórico-Artístico.

Artículo 6

El quórum para la válida constitución del Consejo será el de la mayoría absoluta de sus miembros. Si no hubiera quórum, se constituirá en segunda convocatoria, una hora después de la señalada para la primera, en cuyo caso bastará la asistencia de tres de sus componentes.

Artículo 7

Los miembros del Consejo tendrán derecho a las dietas y comisiones reguladas por el Decreto 307/1985, de 17 de Setiembre, por el que se regula las indemnizaciones por razón de servicio tanto a los Consejeros y altos cargos de la Administración Vasca, como a las personas ajenas a la Administración.

Artículo 8

En lo no regulado por el presente Decreto, el funcionamiento del Consejo se regirá por lo dispuesto en la Ley de Procedimiento Administrativo respecto a los órganos colegiados.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de octubre de 1990.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Cultura y Turismo,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.